

1.– GAUAK ETA EGUNAK, URTE-AROAK, GIROAK

Ona emen, gure lurra obeto ezagutzeko gaiak, Margo Ederdun Entziklopedia'tik artuak, Nemesio Etxaniz itzul-tzaille dala.

Lurra tronpoi baten antzekoa da, biribilla baiña goitik bera luzetua. Eta eguzkiaren inguruan biraka dabil, bide batez tronpa orren antzera albora okertzen dala.

Tronpa oneri luzeen dan lekuan asita beste aldera zuloa egiten ba'dautsagu, punturik puntura doan ziria litzake lurra-ren ardatza eta goian daukagu ipar-burua edo iparraldeko poloa eta bean ego-burua edo ego-aldeko poloa.

Lurra osorik ez da ikusten inondik be, ikuslearen alderdia bakarrik ikusten da.

GAUA TA EGUNA

Gure lurrak eguzkitik artzen dau argia argiagaz batera beroa. Eta argia ta beroa artzen dauzan lur-erdi ori eguna da eta beste erdia gaua.

Baiña ogeta lau ordutan lurrak bere buruari bira emoten dautso eta ordu orreitan eguna ta gaua dira lurraldean aldatzon doaz.

Orregaitik, lur-garrian, ekuadorrean, gauak eta egunak beti bardiñak dira, ez orrelan garritik ipar edo ego-bururantz goazenean: Or, non dan, eguna ta gaua luzeagoak edo laburragoak izango dira eta ego naiz ipar-buruan sei illebeteko eguna edo gaua eukiko dogu.

URTE-AROAK

Lurrak eguzkiaren inguruan 365 baiño geiatxuago diran egunetan egiten dau bira osoa, baiña tronpearen antzera alboratzen da urte orretan eta erdian eguzkiari erakusten dautso ipar-burua eta beste erdian ego-burua, batean sei illebeteko eguna dagon artean bestean sei illebeteko gaua dago, irailletik martira eta martitik irailera.

Eguzkiari begira dagoan lurraldean udea da eta bestean negua. Orrelan ba, gu otzez gagozenez Australian eta Arjentina'n bero egiten dau.


Udearen eta nguaren bitartean udabarria ta udagoiena ipiñi dira.

LUR-AZALA


Lurraren azala, ipar-burutik ego-burura, neurtu gura ba'dozu, 40.000 km. dira. Tren batek, orduko 70 km. egin




Udabarria.



Uda.



Udagoiena.



Negua.

ezkero, 23 egun bearko leukez urten dan lekura barriro eltze-ko.

Antxiña gure lur au eguzkitik aldendu zanean, dana sua zan eta beroa zabaltzen eban inguruan, baiña gero, apurka-apurka otzitu eta inguruan eukan lurruna ur biurtu zan. Orrelan agertu ziran errekek eta itxasoak, basoak eta landak, baiña oraindiño be lur-barruan sua dago, ez da otzitu. Ortik sortzen dira sumendiak.

GIROAK

Lurraren inguruan aizea daukagu, eguratsa, eta orregaitik bizi al gara lur-gaiñean, arnasea bear dogu-ta.

Eta eguratsaren eragiñak aizeak sortzen dauz eta eragin orrek laiñoak otzitu egiten dauz, euriak lurra ezotu dagian, guri janariak emon al izateko.

Laiñoak ez dira besterik itxasotik eta lur-gaiñeko uretatik sortu diran lurrinak baiño. Ur biurtzen diranean, euria izaten dira eta lurra ezotu. Gero, beroagaz barriro lurruntzen dira, edo lurra ondu-ondoren, barriro itxasoa doaz ibaien bidez.

Era miragarria lurra emonkor biurtzeko!

Olazar'tar Martin'ek